

AZKUENAGA, ITXASGIZONA

EUSKAL ITSASGIZONAK.—Oso ezagunak ziran, Europa'ko bazter guztietan, Kantauri'ko gure itsasgizonak. Eta Prantziako Nantes, Hansa-Alkarte'ko Brujas, eta Ingalaterra'ko Londres'eko merkatariakaz eukezan euren artu-emon beiñenak.

Burdin-tresnak, ardu-upelak eta artulesakak eroan; eta garauak, oialak eta zidarreria ekarren gure itxasgizonok.

ONDARRABI'KO BATZARRA.—Ez ziran atzerritar eta gureen arteko artu-emonak beti xamurrak izan. Ingelesakaz izan ebezen euren gora-bera nastauenak.

Ori zala-ta, batzar bat egin eben Ondarrabi'ko urian eta 1344'garrenean, Ingalaterra ta Euskalerrri'ko itxas gizonak. Bermeo'ko seme zan, Azkuenaga'tar Martin Juan Bizkaitarren ordezkari.

Antxe ta orduan bakeak egin, eta ondo jarraitu eben, aldi baten. Gerora baiña, lengo naspillak barriztu, ta alkar burrukan asi ziran.

ASARREA.—Onelan idatzi eutsen Ingalaterra'ko errege Eduardo irugarrenak York eta Kanterbury'ko gongotzaiei, 1350'ko Dagonillaren 10'ean.

Euskaldun zital orreik, Jaunaren zigor bihurturik, gure bazter gustiak apurtzen diardue. Egin, bada, otoitz gure Jainkoari, zuen eliztar guztiekin bat, Jaunak zigor au gugandik alden du dagian.

Eta au idatzi ondoren, bere itxas-ontzi ta itsagizonak burrukarako atonduten asi zan.

WILCHELSEA — Wilchelsea'ko itxas-kolkoan izan zan burruka. Eduardo erregea zan Ingelesen ontziburu, eta Bermeo'ko Azkuenaga, euskaldunen buruzagi.

Luze ta gogor joian eraso. Alde bateko ta besteko ontzi ta gizon asko yoiazan urpera. Ezin eroan ori ingelesak, eta areitako sei ontzik, sekulakoak egiten eragon, Azkuenaga'ren ontziari eraso, eta burruka latz baten ondoren, gillaz gora bota eben. Euskaldunak, orduan bira emanda, alde egin eben Ingalaterra'ko bazterretik.



ITUNA.—York eta Kanterbury'ko kanpaiak, dilin-dalan, ibilli ziran egunetan. Urrezko diru barriak egin ebazan erregeak Wilchelsea'ko burrukaren ezaugarriaz. Eta arrotza ebillen gizona, Euskaldunak betiko alden du ebezalakoan.

Lengotan baiña, jarraitu eben Euskaldunak, galduak galdu. Eta etsi eben, azkenik, Ingelesak, eta itun bat egin eben Euskaldunakaz, urrengo urtean, Londres'ko torre aipatuan. Eta erabagi oneik artu ebezen berton:

Bakotzak bakotxari, ordurarte alkarri egindako, okerrak zuzentzeko. Lurren bakotzeko itxas-gizonak euren ontziak nun-nai ibilli zaitezkezala. Eta Ingalaterra ta Gaztela'k inoz alkar erasotzen ba eben ere, ez ebela euskaldunak inongo okerrik izango.

Itza itz... urteetan *iraun* eban itun onek apurtu barik, lurren biren artean.